

{ datorrena } Iñaki Soto

Argazki kamera, tiro, pun!

Azken asteotan gure lana bereziki latza izan da. Mundua nola dagoen ikusita, laztasun hori uztailearen erdian Mendebaldearen periferiako bulego batean lau katuren artean egunkari bat ateratzea den mirakuluaren mailakoa izan da, besterik ez. Baina maila horretan bereziki latza izan da. Mundua dagoen bezala dagoelako izan da latza, hain zuzen ere.

Egunotan Gazako sarraskia eta Ukrainako hegazkina-
ren aurkako atentatua batera eman dira eta egunero-
egunero argazki agentziek irudi izugarriekin hornitu
gaituzte. Ohikoa baino argazki basatiagoekin eta era
horretako argazki kopuru handiagoarekin asaltatu gai-
tuzte. Eta egunero horrelako hamaika irudi ikusi eta
zein argitaratu eta zein ez erabakitzea gogorra egiten
da amaierarako. Are gehiago egoerari amaierarik ikus-
ten ez zaionean.

Gertaerok direla medio, agentzia horietako editoreek
beraiengan ezohikoak diren hautaketak egin dituzte,
egunero izugarrikeriaren al-
derdirik basatiena erakusten
zuten irudiak nabarmenduz.
Adibidez, France Presse-
k bere *topshots* delakoetan, ale-
gia, egunero bere zerbitzua
kontratatuta dugun komuni-
kabideoi argazki bereziki on
gisa bidaltzen dizkiguten ha-
mar-hogei argazki hauta-
tuak, bertan inoiz sartutako
argazkirik basatienak auke-
ratu dituela iruditzen zait.
Normalean, denboran tarte
luzeagoan gertatuz gero ere,
horrelako gertaerek horrela-
ko zenbait argazki sortuko lituzkete, zalantzarik gabe.
Baina batera gertatu direnez eta bi gertaerak zeharo ba-
satiak izan direnez, bat-batean agentzien estandarrak
mugitu egin direla esango nuke, gordindu egin direla.
Egunotan, irudien gordintasunaz ohartarazten duen eta
irudion erabileraren mugak azaltzen dituen oharra sar-
tzeaz ere ahaztu egin dira maiz. Orokorrean, argazki
hauen kalitatea oso ona da, eta ez dut uste morbo hutsa-
gatik edo sarearekin eta gainontzeko agentziekin lehia-
tzeagatik sartu dituztenik. Baina egindako hautaketaz
zer puntutaraino kontziente diren jakin nahiko nuke.
Beste alde batetik, sare bidez gaur egun jasaten dugun
saturazioa kontuan hartuta, nire iritzi hau egitateen edo
pertzepzio okerraren fruitu ote den jakin nahiko nuke.

Horiek horrela, guk geuk ere salbuespenak egin di-
tugu, eta, adibidez, Gazako hondartzan Israelgo arma-

dak hildako ume baten irudia atera dugu egunkariko
lehen orrialdean. Irizpide orokor gisa eta salbuespe-
nak salbuespen, umeak ez ateratzea hobesten dugu,
areago gatazka baten testuinguruan. Aldi berean, hil-
dakoen argazki espliziturik ez ateratzen saiatzen gara,
morboa ekiditeko. Kasu honetan, nolanahi ere, palesti-
narren aurkako eraso hain bortitza eta koldarra irudi-
tu zaigu, gertatutakoaren larritasuna agerian utzi nahi
izan dugula. Ez dakit asmatu ote dugun, baina eraba-
kia hartu behar genuenon artean erabateko adostasuna
izan zen salbuespena egiteko. Egunkari bat, besteak
beste, tradizio bat da, denboran zehar metatzen joaten
den gauzak egiteko era jakin bat. Nire esperientziaren
arabera, tradizio horren idatzi gabeko arauak hausteko
adostasuna dagoenean, kontuan hartu behar izaten
da.

“The Guardian” egunkariko argazki-zuzendariak, Ro-
ger Tooth jaunak, honi guztiari buruzko artikulua ida-
tzi du aste honetan bertan (<http://goo.gl/v6bP8k>).

Azken egunetako tragediaren hamaika
argazki ikusi ondoren, estrategaren sena
ahuldu egiten zaizu eta gizatasunarena
berpiztu, batzuetan etsitzeko eta beste
batzuetan odola irakiten jartzeko

Testuinguru hauetan honelako hautaketak egiteak di-
tuen zailtasunez mintzo da, baita auzi zehatz honetan
bere ustez hainbat komunikabidek egindako akatsez
ere. Esperientziaren eta sen onaren arteko nahasketa
proposatzen du irizpide orokor gisa. Ez da batere erra-
za, ordea.

Kazetaritzaz harago, politikaren esparruan, gerran
irabazitako bataila batetik porrot politikoa etor daite-
keela erakusten du honek guztiak. Kalkulu hori egin
ezean, armaz gailen daitezkeen batzuek irudien gerra
gal dezaketela argi geratu da. Nolanahi ere, azken egu-
netako tragediaren hamaika argazki ikusi ondoren, es-
trategaren sena ahuldu egiten zaizu eta gizatasunare-
na berpiztu, batzuetan etsitzeko eta beste batzuetan
odola irakiten jartzeko bada ere. Gudaren gordina iru-
dietan islatzen baita, ez geopolitikaren mapetan. •